Espediente-zk.: 2026019 Harmonizatua

Kontratazioaren xedea: Laneko segurtasuneko, higiene industrialeko eta ergonomia-psikosoziologia aplikatuko prebentzio-espezialitateetako kanpoko prebentzio-zerbitzua eta osasunaren eta laneko medikuntzaren zaintza-zerbitzua

Agiria: Preskripzio Teknikoen Agiria.

INDICE

1. XEDEA 2

2. KONTRATUAREN APLIKAZIO-ESPARRUA 2

2.1. LANGILEEN BANAKETA ERAKUNDEEN ARABERA 3

3. LEKUA ETA INSTALAZIOAK 4

4. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA 4

4.1. – HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK 4

4.2. ANTOLAKETA 5

4.3. EGIN BEHARREKO OHIKO PREBENTZIO-JARDUEREN ZERRENDA (aurrerantzean, "OHIKO ZERBITZUAK") 6

4.4. EZOHIKO PREBENTZIO-EKINTZEN ZERRENDA (aurrerantzean, "EZOHIKO ZERBITZUAK") 13

5. LANGILE GAITUAK ZERBITZUARI ATXIKITZEA 13

6. ZERBITZUAREN ERANTZUKIZUNA ETA EGIKARITZEA 14

7. LANA ANTOLATZEA ETA PRESTAZIOAREN BALDINTZAK 15

8. EMANDAKO DATUEN KONFIDENTZIALTASUNA 15

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

1. XEDEA

SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA (aurrerantzean, "**SPRI**") zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da eta Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailera atxikita dago. SPRIk bere langileen osasuna zaintzeko eta osasunaren arlo teknikoko zerbitzuak kontratatu behar ditu; halaber, SPRI Taldea osatzen duten erakunde hauetakoena ere bai: "Nazioartekotzeko Euskal Agentzia – Basque Trade and Investment S.A.", "Euskal Herriko , "Arabako Industrialdea S.A.", "Arratiako Industrialdea S.A.", "Ibaizabal Behekaldeko Industrialdea S.A.", "Bizkaia Sortaldeko Industrialdea S.A.", "Busturialdeko Industrialdea S.A.", "Beterri-Kostako Industrialdea S.A.", "Bidasoa Oarsoko Industrialdea S.A.", "Deba Bailarako Industrialdea S.A.", "Goierri Beheko Industrialdea S.A.", "Tolosaldeko Apattaerrela Industria Lurra S.A.", "Urolako Industrialdea S.A." eta "Burtzeña Enpresa Parkea S.A." (aurrerantzean, "**zerbitzuaren erakunde hartzaileak**"). Preskripzio teknikoen agiri honi zerbitzuaren erakunde hartzaile guztien zerrenda bat gehitu zaio (I. eranskina), eta hori ere agiriaren parte izango da.

Egin beharreko prebentzio-jardueren mota eta kopurua espedientea betearaztean sortuko diren prebentzio-beharrizanen araberakoa izango da.

Egin daitezkeen jarduerak PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRI honetan zehazten direnak dira, eta zerbitzuaren erakunde hartzaileei Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean (aurrerantzean, LAPL) eta Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan (aurrerantzean, PZA; dekretuaren azken aldaketa urriaren 9ko 899/2015 Errege Dekretua betez egin zen) ezarritako oinarrizko betebeharrak betetzea ahalbidetuko die, eta, aldi berean, beste onura batzuk lortzea, besteak beste: enpresaren antolakuntza, produktibitatea eta eraginkortasuna hobetzea; jarduera gauzatzen ari diren langileen segurtasuna eta higienea progresiboki hobetzea, eta izan ditzaketen arriskuak murriztea.

2. KONTRATUAREN APLIKAZIO-ESPARRUA

Kontratazio-eremua lanpostu guztietara zabaltzen da (erakunde hartzaileekin kontratu-harremana duten langileak edo agintari kontratatzaileak egokitzat jotako beste langile batzuk), bai eta instalazio eta bulego guztietara, lanpostu berrietara, kontratuak iraun bitartean alta ematen zaien instalazio eta zerbitzuaren hartzaileak ezohiko moduan behar dituenetara ere.

Halaber, kontratu honen xedea bi lotek osatzen dute:

- 1. lotea (arlo teknikoak): lehenengo loteak Kanpoko Prebentzio Zerbitzu bat izateko beharrari erantzuten dio, Laneko Segurtasuna, Higiene Industriala, Ergonomia-Psikosoziologia Aplikatua eta Arrisku Psikosozialak prebentzio-espezialitateetan, bai eta arlo horrekin lotutako beste alderdi tekniko batzuetan ere, preskripzio teknikoen agiri honetan agertzen diren baldintzetan.
- 2. lotea (osasunaren zaintza): bigarren sortak Osasunaren Zaintza eta Laneko Medikuntza zerbitzuaren beharrari erantzuten dio, preskripzio teknikoen agiri honetan agertzen diren baldintzetan.

2.1. LANGILEEN BANAKETA ERAKUNDEEN ARABERA

Gaur egun, zerbitzuak hartuko dituzten erakundeetan 203 langilek lan egiten dute.

Kontratuak iraun bitartean, langileen kopuru osoa aldatu egin daiteke minimoki, gora edo behera, dela lanpostuak amortizatzeagatik, dela langile berriak kontratatzeagatik, dela erretiroa hartzeagatik; inguruabar horrek ez du ondoriorik izango prezioan eta eman beharreko zerbitzuetan, baldin eta plantilla ez bada aldatzen, gora edo behera, % 10 baino gehiago, aipatutako 203 langileei dagokienez. Honela daude banatuta:

A. **SPRI:** 78 langile.

Generoaren araberako banaketa	Pertsona kopurua
Gizonak	29
Emakumeak	49

B. BASQUETRADE: 39 langile.

Generoaren araberako banaketa	Pertsona kopurua
Gizonak	15
Emakumeak	24

C. ARRISKU-KAPITALA: 11 langile.

Generoaren araberako banaketa	Pertsona kopurua
Gizonak	5
Emakumeak	6

D. BIC ARABA: 9 langile.

Generoaren araberako banaketa	Pertsona kopurua
Gizonak	2
Emakumeak	7

E. AZPILUR: 36 langile.

Generoaren araberako banaketa	Pertsona kopurua
Gizonak	19
Emakumeak	17

F. **INDUSTRIALDEAK:** 30 langile.

- **Araba (3):**
  - Arabako Industrialdea: 3
- **Bizkaia (9):**
  - Arratiako Industrialdea: 3
  - Bizkaia Sortaldeko Industrialdea: 2

- Busturialdeko Industrialdea: 1
- Ibaizabal Behekaldeko Industrialdea: 2
- Burtzeña Enpresa Parkea : 1

- **Gipuzkoa (18):**
  - Beterri Kostako Industrialdea: 5
  - Bidasoa Oarsoko Industrialdea: 3
  - Deba Bailarako Industrialdea: 3
  - Goierri Beheko Industrialdea: 1
  - TAILSA: 3
  - Urolako Industrialdea: 3

Generoaren araberako banaketa	Pertsona kopurua
Gizonak	11
Emakumeak	19

3. LEKUA ETA INSTALAZIOAK

2. lotean (Osasunaren zaintza) Osasun-azterketak kontratistaren instalazioetan egingo dira, zentro bakar batean, eta Zerbitzuaren Erakunde Hartzaileetako langileen lantokitik gertuen dagoena izan beharko du, eskatutako egunean eta ordutegian (maiatza eta ekaina bitartean, 08:00etatik 09:30era), Zerbitzuaren Erakunde Hartzaileek eskatzen dutenean salbu.

Horretarako, enpresa adjudikaziodunak laneko medikuntzarako behar bezala baimendutako osasun-zerbitzu bat izan beharko du, gutxienez, Euskadiko hiru lurralde historikoetako hiriburu bakoitzean. Horren bidez, langileen osasun indibiduala zainduko du, edo, adjudikazioa eskuratuz gero, konpromisoa aurkeztuko du kontratua gauzatzeko behar bezala baimendutako bulegoa atxikitzeko, osasun indibidualaren zaintza-zerbitzua emateko.

Halaber, zerbitzuaren erakunde hartzaileek telelanaren modalitatea dute ezarrita. Modalitate hori SPRIren hitzarmen kolektiboan dago araututa eta honetan datza: telelana eskatu duten langileek ez dute aurrez aurre lan egiten astean behin. Pertsona horientzako arreta eta zerbitzuak kontuan hartu beharko dira eskaintza egiteko orduan, bai 1. loterako (arlo teknikoak), bai 2. loterako (osasunaren zaintza).

4. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

4.1. – HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK

Bi loteetan sortuko eta entregatuko den **dokumentazio guztia** gaztelaniaz eta euskaraz egongo da; era berean, **adjudikaziodunak prestakuntza bi hizkuntzetan emateko gaituta** egon beharko du.

Ildo horretan, dokumentuak kudeatzeko sistemak eta kontratistak erabiltzen dituen beste bitarteko batzuek izan ditzaketen mugak ezin izango zaizkie egotzi entitate hartzaileei, eta ezin izango diote eragin langileek hizkuntza aukeratzeko duten eskubideari. Zehazki, **dokumentazio guztia** (gaitasun-ziurtagiriak barne) bi hizkuntzetan entregatu beharko da.

Nabarmentzekoa da 1. loteari (Arlo Teknikoak) dagozkion txosten teknikoak bi hizkuntzetan entregatzeko denbora ez dela 15 egun baliodunetik gorakoa izango, txosten horiek egiteko behar den informazio guztia lortzen denetik zenbatzen hasita.

2. lotearen (Osasunaren zaintza) dokumentazioari dagokionez, txosten teknikoak bi hizkuntzetan aurkeztu beharko dira, eta entregatzeko denbora ez dela 15 egun baliodunetik gorakoa izango, horiek egiteko behar den informazio guztia lortzen denetik zenbatzen hasita. Bestalde, gaitasun-ziurtagiriak eta osasun-azterketen emaitzak gehienez ere astebeteko epean entregatu beharko dira; lehenengo dokumentua bi hizkuntza ofizialetan entregatu beharko da, eta bigarrena, eragindako pertsonak hautatutako hizkuntzan.

4.2. ANTOLAKETA

1.- Zerbitzuaren Erakunde Hartzaileak

Lizitazio honen berezitasunak direla eta (hainbat sozietatek parte hartzen dute lizitazio horretan), nabarmendu behar da jardueraren garapena banan-banan kudeatu beharko dela sozietate bakoitzarekin, 1. lotean (arlo teknikoak) zein 2. lotean (Osasunaren zaintza).

Horrela, I. ERANSKINEAN Zerbitzuaren Erakunde Hartzaileak eta horiei buruzko informazioa jasotzen dira, eta adjudikaziodunak banan-banan jarri behar du harremanetan horietako bakoitzarekin, kontratua sinatu eta adjudikaziodunak dagozkion kontaktuak bidali eta 15 eguneko epean.

Era berean, agerian geratzen da erakunde bakoitzak bere berezitasunak dituela; beraz, adjudikaziodunaren erantzukizuna da horiek ezagutzea, asimilatzea, zerbitzua egokitzea eta eguneratzea.

2.- Kontratista

Lizitatzaileek lote bakoitzari dagokion espezialitateetarako Kanpoko Prebentzio Zerbitzu gisa behin betiko akreditazioa izan beharko dute, prebentzio-zerbitzuaren osasun-zentroaren behin betiko baimena osasuna zaintzeko jarduerak garatzeko 2. lotearen kasuan, eta legezko baldintzak eta eskakizunak bete beharko dituzte.

Era berean, jarraian adierazten diren baldintzak bi loteetan aplikatuko dira:

Kontratistak, gutxienez, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen 39/1997 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu, bai eta araudi horren 18. artikuluan jasotzen diren giza baliabideak, baliabide materialak eta teknikoak ere.

Enpresa kontratistari dagokio zerbitzuak antolatzea eta ematea, Zerbitzuaren Erakunde Hartzaileek berezkotzat dituzten zereginei kalterik egin gabe.

Zerbitzua eten edo amaitzen bada, kontratatutako prebentzio-zerbitzu berriaren edo, hala badagokio, Zerbitzuaren Erakunde Hartzaileen esku jarriko da dokumentazio guztia. Dokumentazio hori plataforma batean badago, deskarga masiboa egiteko aukera emango da, edo zerbitzuaren emaileak beste bitarteko elektroniko batzuen bidez bidaliko du eskura duen dokumentazio guztia.

Enpresa kontratistak prebentzio-zerbitzua emateko ARDURADUN bat izendatuko du, bai arlo teknikoetarako, bai osasunaren zaintzarako, eta harekin batera jardueraren jarraipena egingo

da. Solaskide horiek arlo horretan esperientzia eta ezagutza egiaztatuak izan beharko dituzte, eta bitarteko nahikoak izango dituzte lanaldian zehar kontratuaren xede den zerbitzuarekin lotutako kontsultei erantzuteko. Zehazki, honako zeregin hauek egingo dituzte:

- Industria-segurtasuneko araudia betetzeko erregistroak egin eta kodifikatzeko prozedurak ezarri, bai eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan garrantzitsua den beste edozein ere.
- Lan-arriskuen prebentzioaren errendimendua aldizka kontrolatzeko eta neurtzeko aukera ematen duten prozedurak egin, bai eta barne-auditoretzak, prebentzioaren kudeaketa-sistemaren aldizkako berrikuspenak, eta abar egin ere.
- Lan Agintaritzaren aurrean eskatzen diren izapideak eta kontsultak egin.
- Informazioa estatistikoki tratatu eta Prebentzio Kudeaketa hobetzeko baliatu.

4.3. EGIN BEHARREKO OHIKO PREBENTZIO-JARDUEREN ZERRENDA (aurrerantzean, "OHIKO ZERBITZUAK")

Bi loteei dagozkien prebentzio-jardueretarako, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 31.3 artikuluan eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritako irizpideak jarraitu eta beteko dira. Era berean, 2. loteari (Osasunaren zaintza) dagozkion jardueretarako, lege horren 22. artikuluan zein Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 37.3, 38. eta 39. artikuluetan eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritako irizpideak beteko dira.

Ohiko zerbitzuak hauek dira:

4.3.1) Prebentzio-jardueren zerbitzua, laneko segurtasuneko, higiene industrialeko, ergonomia-psikosoziologia aplikatuko eta laneko medikuntzako espezialitateetan (1. lotea – arlo teknikoak).

4.3.2) Osasuna Zaintzeko Zerbitzua zerbitzuaren erakunde hartzaileen kolektiborako (2. lotea – osasunaren zaintza).

4.3.1. PREBENTZIO-JARDUERAK, LANEKO SEGURTASUNEKO, HIGIENE INDUSTRIALEKO, ERGONOMIA-PSIKOSOZIOLOGIA APLIKATUKO ESPEZIALITATEETAN (1. lotea)

4.3.1.1. Prebentzioaren arloko jardueren garapena.

Lan-arriskuen prebentzioaren arloan garatu beharreko jarduerak hauek izan beharko dira gutxienez:

4.3.1.1.1.- <u>Aholkularitza eta laguntza teknikoa</u>:

Zerbitzuaren erakunde hartzaile bakoitzeko arriskuen prebentzioko arduradunari/koordinatzaileari edo antzeko lanpostuari laguntza emateko, enpresa kontratistak premia hori ase beharko du arlo teknikoaren barruan. Horretarako, arlo teknikoetako eta lan-segurtasuneko aholkularitzan esperientzia duen teknikari batek aurrez

aurre bisitatuko ditu. Teknikari horrek bisitak egingo ditu aldizka zerbitzuaren erakunde hartzaile bakoitzaren bulegoetara, eta neurketa higienikoak, ergonomikoak eta psikosozialak egin beharko ditu, bai eta aholkularitza eman ere zerbitzuaren erakunde hartzaileetako ordezkaritza-organoei eta, bereziki, Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordeei.

Oro har, uste da gutxienez hiru hilean behin aurrez aurreko bilera bat egingo dela Zerbitzuaren Erakunde Hartzaileekin:

4.3.1.1.2.- Prebentzio-jardueraren plangintza:

- Urteko Programa egin.
- Urteko Memoria egin.
- Prebentzio-ereduaren eraginkortasun orokorra baloratu, bai eta enpresaren sistema orokorrean duen integrazio-maila ere.

4.3.1.1.3.- Laneko segurtasuna:

- Lan-arriskuen ebaluazioa egin.
- Zuzenketa-jarduerak planifikatu (prestakuntza eta jarraipena).
- Prebentzio-plana egin.
- Larrialdi-neurrien plana egin.
- Barne-komunikazioa eta -informazioa eman.
- Istripuak eta gaixotasun profesionalak ikertu.
- Enpresa-jarduerak koordinatzea (prozedura kudeatzea, lantzea edo aldatzea, Zerbitzuaren Erakunde Hartzaileei laguntzea gai horri dagokionez).
- Norbera babesteko ekipamenduak (informazioa, prestakuntza eta premiak identifikatzea).
- Neurri zuzentzaileen txostena egitea, lana telelana-erregimenean egiteko bizilekuaren baldintzak autoebaluatzeko inprimakietatik abiatuta. Autoebaluazio-inprimaki hori Zerbitzuaren Erakunde Hartzaileek emango dute.

4.3.1.1.4.- Ikuskaritza eta kontrola:

- Ikuskaritza-txostenak.
- Prebentzio-neurrien eraginkortasuna kontrolatzeko txostenak.
- Lan-baldintzen aldizkako kontrolak eta berrikuspenak.
- Prebentzioarekin lotutako materialen (NBEak) erosketaren kontrola.
- Ebakuazio- eta larrialdi-simulakroak egin zerbitzuaren hartzaile diren erakundeen jabetzako egoitzetan edo lantokietan.

4.3.1.1.5.- Higiene industriala:

- Arrisku higienikoaren ebaluazioa: zarata, argiztapena, tenperatura, hezetasuna, airearen kalitatea, kutsatzaile kimikoekiko esposizioa.
- Higiene industrialaren arloko ekintza zuzentzaileen programazioa (prestatzea eta jarraipena egitea).
- Arriskuen informazioa.
- Arlo horrekin lotutako gaixotasun profesionalen ikerketa.

4.3.1.1.6.- Ergonomia eta psikosoziologia aplikatua:

- Arrisku ergonomikoak ebaluatu.
- Arrisku psikosozialak ebaluatzea (metodologia mistoa: kuantitatiboa eta kualitatiboa).
- Ergonomia eta psikosoziologia aplikatuaren arloko ekintza zuzentzaileen programazioa (prestatzea eta jarraipena egitea).
- Arlo horrekin lotutako gaixotasun profesionalen ikerketa.
- Baita gai horrekin zerikusia izan dezaketen protokoloei buruzko aholkularitza ere ematea.

4.3.1.2. Prestakuntza-orduak.

Derrigorrezko prestakuntzari eta prestakuntza gehigarriari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko da, dela azalpenean erabilitako aurkezpena, dela azalpen horren laburpen diptiko/triptiko bat.

Era berean, prestakuntza-ziurtagiria aurkeztu beharko da nahitaez egin beharreko prestakuntzetarako, edo bertaratze-ziurtagiria, nahitaezkoak ez badira; bi ziurtagirietako edozeinek kontratistak behar bezala sinatuta egon beharko du. Ziurtagiri horiek bereizita emango dira Zerbitzuaren Erakunde Hartzaile bakoitzarentzat, eta banan-banan, hala eskatzen duen laguntzaile bakoitzarentzat.

Prestakuntzak arlo bakoitzean espezializatutako langileek egingo dituzte, kontuan hartuta bi hizkuntza ofizialetan eman beharko direla.

Prestakuntza guztiak aurrez aurre eta online formatuan egon beharko dute eskuragarri, eta hartzaileak erabakiko du zein modalitatetan emango diren

4.3.1.2.1.- Derrigorrezko prestakuntza:

Derrigorrezko prestakuntzatzat hartuko da aplikatu behar den sektoreko legediaren arabera kontratuaren aplikazio-esparruan sartuta dauden langileei eman behar zaien prestakuntza oro. Prebentzio arloko prestakuntza-orduak ematen diren tokiaren arabera banatu ahalko dira:

- - Prestakuntza espezifikoko orduak zerbitzuaren hartzaile diren erakundeen lantokietan (presentziala) edo telematikoki.
- Kontratistaren beraren zentroetan ematen diren prestakuntza-orduak, prestakuntzaren salbuespenezko ezaugarriengatik beste-zentro mota batzuetan eman behar diren, baldin eta Zerbitzuaren Erakunde Hartzailea ados badago.

Orokorrean, zerrenda exhaustiboa izan gabe, honako hauek egingo dira:

- Lanpostuan, existitzen diren arriskuetan, eta hartu behar diren prebentzio- eta babes-neurrietan, lehen sorospenean barne, jardunbide seguruak sustatzen dituzten prestakuntza-ekintzak.

- Beren ezaugarriek hala eskatzen duten lanpostuetarako prestakuntza-ekintza espezifikoak, hala nola altueran, espazio konfinatuetan eta abarretan lan egiteko arriskuak.
- Lehenengo Esku-hartzeko Taldeentzako prestakuntza- eta birziklapen-ekintzak, gutxienez prestakuntza teoriko eta praktiko (aurresimulakroa) bana izanez.
- Era berean, indarrean dagoen araudiaren arabera nahitaez bete behar diren prestakuntza guztiak emango dira, besteak beste, arrisku psikosozialen prebentzioarekin lotutakoak (jokabide desegokiak, laneko jazarpena eta indarkeria).

Ekintza guzti horiek, ahal den guztietan, Zerbitzuaren Erakunde Hartzaileen lokaletan emango dira, betiere SPRIk erabakita.

4.3.1.2.2.- Prestakuntza gehigarria:

Horrez gain, 1. loteko (Arlo teknikoak) eta 2. loteko (Osasunaren zaintza) lizitatzaileak formula bidez ebalua daitekeen eskaintzan **(III.2.A ERANSKINA) AKPA eta III.2.B) ERANSKINA AKPA, hurrenez hurren**) prestakuntza gehigarriak aurkeztu ahal izango ditu, arestian azaldutakoez gain, kontuan hartuta proposatutako prestakuntzak bi hizkuntza ofizialetan eman ahal izango direla (prestakuntza bakar gisa zenbatuko da bi hizkuntzetan ematea, bi saiotan bada ere), eta aukerak online zein formatu presentzialean jaso beharko dituztela.

4.3.2. OSASUNA ZAINTZEKO URTEKO ZERBITZUA (2. lotea)

Osasuna zaintzeko sistemak (2. lotea), gutxienez, honako puntu hauek izango ditu:

- Osasunaren zaintzaren plangintza
- Urteko memoriak eta txostenak
- Mediku-azterketak

4.3.2.1. Osasunaren zaintzaren plangintza.

Gutxienez honako puntu hauek jorratu beharko ditu:

- Osasunaren zaintzaren esparruko plan eta jarduketa-programen diseinua, aplikazioa eta koordinazioa.
- Arriskuen identifikazioan, ebaluazioan eta analisian parte hartzea.
- Lehentasunak ezartzea neurri zuzentzaileak eta prebentzio-neurriak hartzeko, lan-arrisku jakin batzuen eraginpean egoteak osasunean izan ditzakeen ondorioen gainean.
- Behatutako hutsune teknikoak zuzentzeko aholkularitza.
- Langileei informazioa ematea.
- Langileak prestatzea laneko osasunari lotutako gaietan.
- Jarduketen eraginkortasunaren kontrolean parte hartzea.
- Analisi epidemiologikoa.
- Langileek egindako lanaren ondorioz jasandako osasun-kalteak jakinaraztea.

4.3.2.2. Memoriak eta txostenak.

Gutxienez honako puntu hauek jorratu beharko ditu:

- Osasuna zaintzeko proiektua.
- Osasuna zaintzeko jardueren urteko programa.
- Mediku-txosten pertsonalak eta pribatuak (konfidentzialtasun handiz).
- Lanpostuari dagozkion lanak egiteko langileen gaitasunaren kalifikazioa.
- Prebentzio-zerbitzuaren osasun-jardueren memoria.

4.3.2.3. Mediku-azterketak.

Honako egoera hauetan osasun-azterketak egin beharko dira:

- Hasierakoak: kontratatu berri den pertsona orori.
- Aldizkakoak: urtean behin, langile guztiei.

Era berean, osasun-azterketak egingo dira osasuna zaintzeko protokoloetako zehaztapenen arabera:

- Lanpostuetako zereginak edo arriskuak nabarmen aldatzeagatik.
- Lanean berriz hasteagatik, osasun-arrazoien ondorioz luzaro lan egin gabe egon ostean.

Era berean, osasun-azterketak honako baldintza hauetan egingo dira

- Lantoki bakoitzari azterketetarako lagin-botilak bidaltzea, inolako kostu gehigarririk sortu gabe.
- Bi hizkuntza ofizialetan egindako osasun-azterketen emaitza astebeteko epean emango zaio eragindako pertsonari, emaitzak jasotzen dituen txostena zein erakunde hartzailearentzako gaitasun-ziurtagiria.
- Emaitzen txostenarekin batera gomendioen eranskina bidaliko da lortutako emaitzen arabera hobetu daitezkeen alorretarako.
- Hitzordu bat aldatu behar izanez gero, gehienez ere 1 asteko epean berri bat eman beharko da.
- Osasun-azterketak zentro bakar batean egingo dira, eta lantokietatik gertuen dagoena izan beharko du.
- Osasun-azterketa guztiak 08:00etatik 09:30era arteko tartean egingo dira, osasun-azterketaren modalitatea edozein dela ere.
- Aldizkako azterketei dagokienez, orokorrean, maiatzean eta ekainean egingo dira, Zerbitzuaren Erakunde Hartzaileak bestelakorik adierazten duenean salbu; edozein kasutan 08:00etatik 09:30era egin beharko dira.
- Hasierako osasun-azterketak langilea lanean hasten denetik 1 asteko epean egin beharko dira, Zerbitzuaren Erakunde Hartzaileak bestelakorik adierazten duenean salbu.
- Osasun-azterketak bi hizkuntza ofizialetako (euskara eta gaztelania) edozeinetan egin ahal izan beharko da, eta emaitzak aukeratutako hizkuntzan eman beharko dira. Halaber, eragindako pertsonari berak hautatutako hizkuntzan eman beharko zaio azterketaren emaitza, eta erakunde hartzaileari bidalitako gaitasun-ziurtagiria, berriz, bi hizkuntza ofizialetan eman beharko zaio.

Hona hemen mediku-azterketen gutxieneko edukia:

a).- Historia kliniko-laborala:

- Lan-anamnesia, non honako hauek jasota utziko diren: lanpostuaren deskribapen xehatua, bertan emandako denbora, lanpostuaren baldintzen analisian detektatutako arriskuak eta hartuta prebentzio-neurriak.
- Anamnesi pertsonala.

b).- Azterketa fisikoa:

- Azterketa fisiko neurologikoa.
- Azterketa fisiko kardiopulmonarra.
- Azterketa fisiko abdominala.
- Azterketa fisiko osteoartikularra, etab.

c).- Miaketa osagarriak:

- Ikusmena kontrolatzea, begietako tentsioa barne (tonometria).
- Otoskopia.
- Audiometria kabina homologatuan.
- Elektrokardiograma.
- Espirometria.
- Odol-analisia:
  - Hemograma eta sedimentazio globularraren abiadura.
  - Odol-biokimikoa: kreatinina, glukosa, guztizko kolesterola, HDL eta LDL, triglizeridoak, azido urikoa, GOT, GPT eta GGT (entzima hepatikoak).
- Gernu-analisia: anormalak eta sedimentua.

Mediku-azterketa orokorrek, gutxienez, honako proba analitiko hauek izango dituzte, inolako kostu gehigarririk gabe:

HEMATOLOGIA:

- Hematiak
- Leukozitoak
- Hemoglobina
- Hematokritoa
- Batez besteko bolumen korpuskularra
- Batez besteko hemoglobina korpuskularra
- Batez besteko hemoglobina korpuskularraren kontzentrazioa
- Eritrozito-banaketaren esparrua
- Plaketak
- Batez besteko bolumen plakearra
- Linfozitoak
- Neutrofiloak
- Monozitoak
- Eosinofiloak
- Basofiloak
- Eritroblastoak

ABIADURA:

- SGA

BIOKIMIKA:

- Glukosa
- Kreatinina
- Iragazki glomerularra (zenbatetsia)
- Urea
- Guztizko kolesterola
- Azido urikoa
- GOT
- GPT
- GGT
- HDL kolesterola
- Triglizeridoak
- LDL kolesterola
- VLDL kolesterola
- LDL ez den kolesterola
- Arrisku aterogenikoa
- Sideremia
- Saturazio-indizea
- Burdina
- Transferrina
- IS Transferrina
- D vitamina (25-OH)

MARKAGAILUAK:

- Guztizko PSA
- Ferritina (seruma)
- T3 askea serumean
- TSH Irma serumean
- T4 askea serumean
- Ca 19.9 (markagailu tumorala) serumean
- Antigeno kartzinoenbrionarioa
- Ca125 markagailu tumorala
- Ca 15.3 markagailu tumorala

GERNUA:

- Dentsitatea

- Proteinak
- Glukosa
- Gorputz zetonikoak
- Bilirrubina

- Hematiak
- Nitritoak
- Urobilinogenoa
- Leukozitoak
- Sedimentua

4.4. EZOHIKO PREBENTZIO-EKINTZEN ZERRENDA (aurrerantzean, "EZOHIKO ZERBITZUAK")

Zerbitzu horrek ezohiko lanen izaera izango du; hortaz, agiri tekniko honetan deskribatutako gainontzeko ohiko zerbitzuen fakturaziotik kanpo fakturatu beharko da.

Zerbitzuaren erakunde hartzaileek langileei eskaintzen dieten zerbitzua da; hortaz, eskubidea da, eta ez betebeharra. Horrenbestez, zerbitzuen kopuru zehatza langileek egindako eskabide-kopuruaren menpe egongo da.

4.4.1. GRIPEAREN AURKAKO TXERTOA (2. lotea).

2. lotean, Zerbitzuaren Erakunde Hartzaileek beren langileei gripearen aurkako txertoa eskainiko diete, eta nahi badute har dezakete. Horretarako eskaintza ekonomikoa aurkeztu beharko da.

Txertoa erreferentzia gisa identifikatutako Kanpoko Prebentziorako Zerbitzuko zentroan eman beharko da, lantokitik gertuen dagoenean.

4.4.2. NORBERAREN BABESERAKO PLANA (1. lotea).

1. lotean, Zerbitzuaren Erakunde Hartzaileetako batzuk egoitzak edo lantokiak dituztenez, honako behar hauek sor litezke:

- Norberaren Babeserako Plan berria egitea.
- Egungo Norberaren Babeserako Plana berrikusi edo eguneratzea.

Bi kasuetan, erakunde hartzaileen lokaletan eskatzen den dokumentazioa egin eta erregistratzeko laguntza emango da.

Kontratuaren atal honi esleitutako aurrekontuaren arabera, 1 Plan berri egitea eta 3 plan berrikusi edo eguneratzeko aukera aurreikusten da. Hori guztia plan osagarrietan lan egiteko aukerari kalterik egin gabe, atal honetarako lizitatzaileek aurkeztutako eskaintza ekonomikoen arabera.

5. LANGILE GAITUAK ZERBITZUARI ATXIKITZEA

Bi loteetako prebentzio-jardueretara bideratutako giza baliabideak eta baliabide materialak bat etorriko dira eskatutako zerbitzuekin eta erakunde hartzaileen tamaina eta bertako langile-kopuruarekin.

Erakunde adjudikaziodunak gaitasun eta prestakuntza egokiak dituzten langileak izango dituzte, indarreko araudiarekin bat etorriz, eta langile horiek beharrezko esperientzia izan beharko dute loteetako bakoitzean esleituta dituzten lanak egiteko.

Lantaldeetako kide guztiek dagokien lotean esleitutako eginkizunak betetzeko titulazioa eta gaitasuna izan beharko dute, 39/1997 Errege Dekretuaren 37. artikuluaren eta, hala dagokionean, VI. eranskinaren arabera, bai eta osasun-araudiaren eta lote bakoitzari aplikatu beharreko gainerako araudi espezifikoaren arabera ere.

Hala ere, kontratua egikaritzeko, gutxienez, honako giza baliabide hauek atxikitzeko konpromisoa behar da:

- **ARDURADUN** edo **SOLASKIDE** bat; gutxienez 5 urteko esperientzia eta ezagutzak egiaztatu behar izango dituzte arloan, eta baliabide nahikoak izango dituzte lanaldian zehar kontratazioaren xede den zerbitzuarekin lotutako kontsultak artatzeko. Pertsona hori identifikatu beharko da 1. lotean (arlo teknikoak) eta 2. lotean (osasunaren zaintza). Eskaintza konbinatua egiten bada eta 2 loteak enpresa berari adjudikatzen bazaizkio, arduradun-solaskidea pertsona bera izan daiteke jarduera osorako.
- (1. lotea – arlo teknikoak) LAPeko GOI-MAILAKO TEKNIKARI bat honako espezialitate hauetan, laneko segurtasuna, industria-higienea, ergonomia eta psikosoziologia aplikatua, espezialitate horietan egiazta daitekeen gutxieneko 5 urteko esperientziarekin.
  LAPeko GOI-MAILAKO TEKNIKARIAri dagokionez, adierazitako arloak modu proaktiboan kudeatzea eskatuko da, eta modu aktiboan kudeatu beharko ditu Zerbitzuaren Erakunde Hartzaileetako solaskideekin, Laneko Arriskuak Prebenitzeari buruzko lege-eskakizun guztiak betetzeko. Horretarako egutegi-urtean egin behar diren jarduketek egutegia aurkeztu beharko da. Horren jarraipena egingo da, eta bete beharreko errekerimenduei buruzko oharrak bidaliko dira (adib., dokumentazioa bidaltzen denean, adierazi beharko da Enpresako Zuzendaritzak edo langileek sinatu behar duten, neurri zuzentzaileen jarraipenak egin, etab.).
- (2. lotea – Osasunaren zaintza) **LANEKO MEDIKUNTZAN ESPEZIALIZATUTAKO MEDIKUA**, gutxienez 5 urteko esperientzia egiaztagarria duena espezialitate horretan.
- (2. lotea – Osasunaren zaintza) **Laneko erizaintzan espezializatutako OLT/EUDa,** gutxienez 5 urteko esperientzia egiaztagarria duena espezialitate horretan.

Era berean, 2. loteari (Osasunaren zaintza) dagozkion jarduerak egiteko, honako hauek eskatu ahal izango dira:

- Kanpoko Prebentzio Zerbitzuaren behin betiko baimena izatea laneko medikuntzako diziplinan (osasunaren zaintza), Euskal Autonomia Erkidegoan jarduteko baliagarria dena.
- Prebentzio-zerbitzuaren osasun-zentroaren edo -zentroen behin betiko baimena edo baimenak izatea osasuna zaintzeko jarduerak egiteko, prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduerarako eta laneko medikuntzaren auditoretzarako baliabideak antolatzeko arauak ezartzen dituen abenduaren 27ko 221/2001 Dekretuan xedatutakoa betez.

6. ZERBITZUAREN ERANTZUKIZUNA ETA EGIKARITZEA

Enpresa kontratistak, gutxienez, koordinatzaile edo teknikari arduradun bat izendatu beharko du (plantillakoa izan beharko du); bera izango da erakunde kontratatzailearekin harremanetan jarriko den solaskide bakarra eta berari egokituko zaio proiektua zuzentzea eta

enpresa adjudikazioduneko gainontzeko langileei aginduak eta jarraibideak zuzenean ematea.

Kontratistak koordinatzaile edo arduradun bat identifikatu beharko du adjudikaziodun den lote bakoitzerako. Enpresa bera bi loteen adjudikazioduna bada, koordinatzaile edo arduradun bakarra izendatu ahal izango du kontratu osorako.

Kontratista izango da garatutako lanen eta emandako zerbitzuen eta prestazioen kalitate teknikoaren arduraduna lote bakoitzaren kasuan, baita erakunde hartzaileentzat edo hirugarrenentzat kontratua gauzatzean gertatutako ez-egiteen, hutsegiteen, metodo desegokien edo ondorio okerren eraginez sortutako ondorioena ere.

7. LANA ANTOLATZEA ETA PRESTAZIOAREN BALDINTZAK

Kontratistak bere esku izan beharko ditu beharrezko langile eta baliabide material guztiak lizitazioaren xede den kontratuaren betebeharrak betetzeko. Halaber, erakunde bakoitzarentzat aurreikusitako lan-orduak ezarri beharko ditu, egin beharreko lanen arabera.

Bestalde, erakunde hartzaileek egokitzat jotzen dituzten kontrol-neurriak ezarri beharko dituzte kontratistak prestazioa osorik eta zuzen betetzen duela egiaztatzeko.

Prestazioa kalitatez, zorroztasunez eta eraginkortasunez gauzatuko da, eta zerbitzua zuzenean edo zeharka arautzen duten indarreko legezko eta erregelamenduzko xedapen, arau eta zehaztapen guztiak betez.

Kontratista, nagusi gisa, kontratuari atxikitako langileen erantzule da; hala, bere ardurapean geratuko da indarrean dauden eta etorkizunean ezartzen diren laneko, Gizarte Segurantzako, segurtasun eta osasuneko eta zergen arloko baldintzak betetzea. Halaber, erakunde hartzaileak salbuetsita geratuko dira kontratistak arestian adierazitako betebeharrak ez betetzearen ondorioz sor daitezkeen erantzukizun guztietatik. Salbuespen horren barruan egongo da kontratistaren edo azpikontratatutako langileen menpe soilik dauden langileek gauzatutako kontratuaren xede den prestazioa.

Kontratistaren kontura izango dira kontratua betetzeko behar diren gastu guztiak, baita kontratua betetzeagatik sor daitezkeen kalte-galerei dagozkien kalte-ordainak ere.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratistak eskatutako dokumentazio guztia (kontratu honen betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko) aurkeztu beharko du, zerbitzuaren erakunde hartzaileek eskatu ostean.

8. EMANDAKO DATUEN KONFIDENTZIALTASUNA

8.1.- Adjudikaziodunak kontratua eratzeagatik, eta, ondoren, egikaritzeagatik zerbitzua jasoko duen erakunde hartzaileetatik eta horietara atxikitako langileengandik lortutako informazio guztia konfidentziala da eta soilik kontratu honen esparruan erabili ahalko da.

8.2.- Horrenbestez, ezingo dute berentzat erabili edo hirugarren ez-interesdunei eman datu edo informazio pertsonalik, datuak bildu diren xedea ez den beste edozein xedetarako; hala, eskura dituzten neurri guztiak hartu beharko dituzte informazio horren eta lortutako emaitzen konfidentzialtasuna bermatzeko**.**

8.3.- Betebehar horietako edozein haustea arau-hauste larritzat joko da, eta, horren ondorioz, kontratua suntsiaraziko da ez-betetzea gertatzeagatik, kontratistak edo kontratistek izan ditzaketen edozein motatako erantzukizunei kalterik egin gabe.

I. ERANSKINA – ZERBITZUAREN ERAKUNDE HARTZAILEAK

(Lantoki bat baino gehiago dituzten enpresak daude)

1. **SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA**

   Egoitza: Urkixo zumarkalea 36, 48011 - BILBO

2. **NAZIOARTEKOTZEAREN EUSKAL AGENTZIA-BASQUE TRADE AND INVESTMENT S.A.**

   Egoitza: Urkixo zumarkalea 36, 48011 - BILBO

3. **EUSKAL HERRIKO ARRISKU-KAPITALAREN KUDEAKETA, IKEKS, S.A.**

   Egoitza: Urkixo zumarkalea 36, 48011 - BILBO

4. **BIC ARABA- ARABAKO ERABERRIKUNTZA INDUSTRIALDEA S.A.**

   Egoitza: Albert Einstein 15, Arabako Teknologia Parkea 01510 - MIÑAO

5. **AZPILUR EUSKADI, S.A.M.P.**

   1. egoitza: Urkixo zumarkalea 36, 48011 - BILBO

   2. egoitza: La Azucarera eraikina, los Huetos hiribidea 75, 01010 - VITORIA-GASTEIZ

6. **INDUSTRIALDEAK**

   - **Arabako Industrialdea S. A**.
     Egoitza: Uzbina kalea, bulegoen eraikina (13. bulegoa), Jundiz enpresa parkea - 6. Eremua, 01015 (VITORIA-GASTEIZ)
   - **Arratiako Industrialdea S. A.**
     Egoitza: Bildosola Industrialdea, E1 eraikinak 48142 (ARTEA)
   - **Ibaizabal Behekaldeko Industrialdea S.A.**
     Egoitza: El Campillo, bulegoen eraikina, 2. solairua, 6. saila, 48500 (ABANTO-ZIERBENA)
   - **Bizkaia Sortaldeko Industrialdea S.A.**
     Egoitza: Okamika Auzoa 48, 48289 (GIZABURUAGA)
   - **Busturialdeko Industrialdea S.A.**
     Egoitza: Goiko Ibarra Kalea, 32, 1. solairua, Txaporta industrialdea, 48300 - GERNIKA
   - **Beterri-Kostako Industrialdea S.A.**
     Egoitza: Juan Fermin Gilisagasti kalea 1, Zurriola eraikina, 2. solairua, 4. lokala, 20018 (DONOSTIA)
   - **Bidasoa Oarsoko Industrialdea S.A.**

1. egoitza: Ventas industrialdea, Gabiria 2, 1. solairua, I bulegoa, 20305 (IRUN)
2. egoitza: Sagasti industrialdea, Aritzbakar kalea 1, 1. solairua (Zerbitzuen Eraikina) 20100 LEZO
3. egoitza: Ugalde eraikina, Lamisingo Iturria kalea 1, 20305 IRUN
4. egoitza: Nabalaldea poligonoa: Meipi kalea, 20110 PASAI DONIBANE

- **Deba Bailarako Industrialdea S.A.**
  1. egoitza: Ibaitarte 5 industrialdea, 1. solairua, 20870 (ELGOIBAR)
  2. egoitza: Basabe E0-10 industrialdea, 20550 (ARETXABALETA**)**
- **Goierri Beheko Industrialdea S.A.**
  Egoitza: Industrialdea poligonoa, Mallutz kalea, z/g, 20240 (ORDIZIA)
- **Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra S.A.**
  Egoitza: Apatta poligonoa, Uzturre kalea 1, 302. bulegoa, 20400 (IBARRA)
- **Urolako Industrialdea S.A.**
  Egoitza: Argixao industrialdea, bulegoen eraikina, 2. solairua, 20700 (ZUMARRAGA)
- **Burtzeña Enpresa Parkea S.A.**
  Egoitza: Bizkaiko Labe Garaiak etorbidea 33, Ilgner eraikina, I.5 saila, 48902 (BARAKALDO)